

## **DONOSTIA KIROLAK WEBGUNEKO ABONATUAREN GUNEA BERRITU DU**

- **Erabilgarritasuna hobetzen du eta online zerbitzu berriak eskaintzen ditu**

Donostia Kirolak urratsak egiten jarraitzen du izapideak eta zerbitzuak digitalizatzeko estrategian, eta, ildo horretan, abonatuaren gunea bat aurkeztu du webgunean, erabat berritua, eskaintzen dituen izapideetarako erabilgarritasuna hobetuz.

Iñaki Gabarain Kiroletako eta Bizitza Osasungarriko zinegotziak adierazi duenez, "2023an, udalaren kirol-zerbitzuekin lotutako izapideen % 74 baino gehiago online egin ziren plataforma horren bidez. Horrek esan nahi du 50.000 izapide baino gehiago egin zirela web bidez, hala nola ikastaroetan izena ematea, abonatu berriak, erreserbak edo dirulaguntzak".

Zerbitzuen digitalizazioan egindako aurrerapen horrek ez du esan nahi Donostia Kirolaren aurrez aurreko arreta murriztu behar denik, ohiko ordutegietan mantentzen baita, bai Donostia Kirolaren bulegoetan, bai udal kiroldegietan, eten digitalak ez diezaion inori oztoporik eragin.

Donostia Kirolaren webgunean leku nabarmena duen abonatuaren gunea berrituta honetan, izapide ugari egin eta hainbat zerbitzutara sar daiteke: Kirol txartelean alta ematea, datu pertsonalak aldatzea, hileko abonua berritzea, ordainagiriak, instalazioetara sartu izanaren historikoa, ordaintzeko modua aldatzea, Aukeran programaren asteko programazioan ikastaroetara edo saioetara izena ematea, zozketetan parte hartzea, etab. Gehitu den berrikuntzetako bat Bizum bidez kontratatutako zerbitzuak ordaintzeko aukera da, horrela ordainketa prozesu osoa erraztuz.

Horrez gain, aldi baterako txartel birtual bat ere deskarga daiteke, Kirol Txartelean abonatuak pertsonari aukera ematen diena kirol-instalazioetako sarrera-tornuetatik sartzeko mugikorra erabiliz, txartel fisikoa erabili beharrik gabe. Iaz 218.000 sarrera egin ziren Kirol txartel birtual hau erabiliz.

Datozen hilabeteetan zerbitzu berriak txertatuko dira, hala nola itxaron-zerrenden kudeaketa automatikoa, ikastaroetan baja emateko edo taldea aldatzeko eskaerak, sarreren eta bonuen salmenta, etab.

Azkenik, gogoratu Kirol txartel birtual hau Eusko Jaurlaritzaren NikPatrika aplikazioaren bidez ere erabil daitekeela. Aplikazio horrek, laster, abonatuaren gunea hori ere barne hartuko du.

# Prentsa oharra

## Nota de prensa

